Eskakizunak Gobernuari zonalde honetarako (Lizarra), Euskararekiko jarreraren arabera. (PROPOSATUTAKO ERANTZUNA).

170. Taula. Euskarari buruzko kontzientziazio kanpainak nafar hizkuntza gisa.

	GUZTIRA %	AURKA- KOA %	AXOLA- GABEA %	ALDE- KOA %	OSO ALDE KOA %
Garrantzizkoa	50.3	10.0	44.4	87.2	100.0
Indiferentea	29.8	51.7	36.1	8.5	-
Deus gutikoa	19.3	36.7	19.4	4.3	-
ED/EE	0.6	1.7	-	-	-
OINARRIA (161)		(60)	(36)	(47)	(18)

171. Taula. Erabilpen eta ikasketari buruzko kontzientziazio kanpainak.

	GUZTIRA %	AURKA- KOA %	AXOLA- GABEA %	ALDE- KOA %	OSO ALDE KOA %
.. -----!-----!-----!-----!-----					
Garrantzizkoa	51.6	13.3	44.4	87.2	100.0
Indiferentea	31.1	55.0	36.1	8.5	-
Deus gutikoa	16.8	30.0	19.4	4.3	-
ED/EE	0.6	1.7	-	-	-
OINARRIA (161)		(60)	(36)	(47)	(18)

172. Taula. Euskarazko kultur iharduerak sustatzea.

	GUZTIRA %	AURKA- KOA %	AXOLA- GABEA %	ALDE- KOA %	OSO ALDE KOA_ %
Garrantzizkoa	49.1	10.0	41.7	85.1	100.0
Indiferentea	32.9	58.3	36.1	10.6	-
Deus gutikoa	17.4	30.0	22.2	4.3	-
ED/EE	0.6	1.7	-	-	-
OINARRIA (161)		(60)	(36)	(47)	(18)

173. Taula. Udaletan erabilpena gero eta gehiago sartzea.

	GUZTIRA %	AURKA- KOA %	AXOLA- GABEA %	ALDE- KOA %	OSO ALDE KOA_ %
.. -----!-----!-----!-----!-----!-----					
Garrantzizkoa	47.8	6.7	38.9	87.2	100.0
Indiferentea	31.1	58.3	27.8	10.6	-
Deus gutikoa	20.5	33.3	33.3	2.1	-
ED/EE	0.6	1.7	-	-	-
OINARRIA (161)		(60)	(36)	(47)	(18)

174. Taula. Euskara asignatura Ikastetxeetan sartzea.

	GUZTIRA %	AURKA- KOA %	AXOLA- GABEA %	ALDE- KOA %	OSO ALDE KOA %
..	-----!-----!-----!-----!-----!-----				
Garrantzizkoa	46.6	3.3	38.9	87.2	100.0
Indiferentea	31.1	58.3	30.6	8.5	-
Deus gutikoa	21.7	36.7	30.6	4.3	-
ED/EE	0.6	1.7	-	-	-
OINARRIA	(161)	(60)	(36)	(47)	(18)

Lojikoa denez, Euskararekiko jarrerak lotuera haundia du hizkuntzaren gainean egiten diren eskakizunekin. Oso alde dauden guzti-guztiek garrantzizkotzat jotzen dituzte haren inguruan egiten diren eskakizunak. Aldiz, aurkakoen taldeak, nagusiki, indeferentzetzat edo deus gutikotzat hartzen ditu proposamen gehienak.

LABURPEN GISA, Lizarran bi talde bizi dira, bat haundia (%37.3) eta aurkakoa, eta bertze bat %11.2koa oso aldekoa dena. Bi taldeek oso eritzi kontra-jarriak defendatzen dituzte euskarari dagokionean.

Euskararen erabilpenak ez dira hagitzez haundiagoak Lizarran bere inguruan eta are Hegoaldeko bertze zonalde batzuetakoen aldean.

%20ak inguru noizean behin Euskarazko txartelak, liburuskak e.a. ikusten dituela dio eta %9.3ak mintzatzen dela aitortzen du.

Alor honetan, kontzientziatuena 31 eta 40 urte bitarteak dirudi. Talde hau da, hain juxtu ere, eskakizunik haundienak egiten dituenak. %37.9ak uste du Gobernua ez dela zonalde honetan euskara bultzatzeaz arduratzen.

V. ELITEAREN JARRERA.

V. ELITEAREN JARRERA.

Oinarri metodologikoetan aipatu denez, talde "ideal" bat eratu dugu eta hari "elitea" izena eman, sozio-ekonomiarekin, kulturarekin, habitatarekin eta bertze zenbaitekin zerikusia duten aldagaiek osatua.

Elite honek garrantzia du maila kualitatibo batean, berak zilegiztatzen baititu hainbat jokamolde eta "pentsamolde" ere, guti-gutika gizartearen muinean gorpuztuz doazenak.

"Groso modo", Paretok eliteei buruz moldatu zuen teoria oinarritako harturik, jakin nahi izan dugu zer jarrera azaltzen duen Euskara eta haren sustapena dela medio.

Eratu ahal izateko, ondoko aldagaiak hartu ditugu aintzat:

- Goi eta erdi-goiko gizarte statusa.
- Goiko kultur maila.
- Goiko eta erdiko elkartze maila.
- 30-60 bitarteko adina.
- 5.000 biztanle baino gehiagoko habitata eta Iruñea.

Ezaugarriei dagokienez hiritar edo erdizka hiritar (Tafalla, Lizarra, Tuteria, Altsasu, Korella, e.a.) den gizabanakoa dugu, heldua (30-60 urte bitartekoa), erdi-goiko edo goiko maila sozio-ekonomikokoa, kultoa eta kultura kontsumitzeko ohiturak dituen eta goiko edo erdiko elkartzetako mailakoa, hau da, elkarte bat baino gehiagoko bazkide dugu.

Elitearen perfil osoa ondokoa da:

	%
<u>Sexua:</u>	
Gizonezkoa	68.4
Emakumezkoa	31.6
<u>Adina:</u>	
16-20 urte	-
21-30 urte	-
31-40 urte	63.8
41-50 urte	26.0
51-60 urte	10.2
60 urte baino gehiago	-
<u>Habitata:</u>	
5.000 biztanle baino gutiago	-
5.000 biztanle baino gehiago	53.3
Iruñea	46.7
<u>Jatorria:</u>	
Nafarroa	70.6
Euskadi	8.2
Gainerakoa	21.3

	%
<u>Kultur Maila:</u>	
Behekoa	-
Erdikoa	-
Goikoa	100.0
<u>Elkartze maila:</u>	
Behekoa	-
Erdikoa	55.1
Goikoa	44.9
<u>Gizarte-Statusa:</u>	
Goikoa	52.4
Erdi-goikoa	47.6
Erdikoa	-
Erdi-behekoa	-
Behekoa	-
<u>Euskararekiko Jarrera:</u>	
Aurkakoa	33.7
Axolagabea	34.5
Aldekoa	28.6
Oso aldekoa	3.2
<u>Ikasketa maila:</u>	
Lehen mailak baino gutiago	-
Lehen mailak	1.2
O.H.O.	0.4
L.H.	3.7
B.B.B.	23.7
Unibertsitateko erdi maila	35.4
Unibertsitateko goi maila	35.6

Euskararekikoei dagokienez, hauxe dugu:

175. Taula. Euskararekiko Jarrera.

	GUZTIRA NAFARROA		ELITEAK	
	%		%	
Aurkakoa	29.7		33.7	] 68.2
Axolagabea	22.2	51.9	34.5	
Aldekoa	35.6		28.6	] 31.8
Oso aldekoa	12.6	48.2	3.2	

Nafarren erdixeak modu batean eta bertze erdixeak bertzela jokatzeko duten bitartean, elitean %68.2a ez-alde kokatzen da eta %31.8, berriz, alde. %3.2a baizik ez da euskararen oso aldekoa.

176. Taula. Euskararen Erabilpena.

	GUZTIRA NAFARROA %	ELITEA %
<u>Euskararekiko harremana:</u>		
Egunero mintzatzen naiz	9.0	1.0
Maiz mintzatzen naiz	6.7	9.1
Aunitz aditzen dut, baina mintzatu ez	7.4	11.5
Zerbait aditzen dut, mintzatu gabe	38.9	50.4
Ez dut sekula aditzen	38.0	28.0
ED/EE	0.0	-
<u>Maiztasuna Euskarazko TB:</u>		
Egunero	18.9	14.7
Noizean behin	46.7	57.7
Sekula ez	34.1	27.5
ED/EE	0.2	-
<u>Maiztasuna Euskarazko Irratia:</u>		
Egunero	4.8	0.6
Noizean behin	13.9	13.6
Sekula ez	81.2	85.8
ED/EE	0.2	-
<u>Maiztasuna Euskarazko Egunkariak:</u>		
Egunero	3.5	2.1
Noizean behin	11.0	15.8
Sekula ez	85.4	82.1
ED/EE	0.2	-
<u>Maiztasuna Euskarazko Aldizkariak:</u>		
Egunero	1.6	0.2
Noizean behin	9.3	17.0
Sekula ez	89.0	82.8
ED/EE	0.2	-
	OINARRIA (3035)	(120)

	GUZTIRA NAFARROA %	ELITEA %
<u>Maiztasuna Euskarazko Liburuskak:</u>		
Egunero	1.5	0.2
Noizean behin	14.1	18.1
Sekula ez	84.2	81.7
ED/EE	0.2	-
<u>Maiztasuna Propaganda iragarkiak</u>		
<u>Euskaraz:</u>		
Egunero	2.0	2.8
Noizean behin	23.0	25.1
Sekula ez	74.7	72.1
ED/EE	0.3	-
<u>Maiztasuna Euskarazko Txartelak:</u>		
Egunero	5.3	13.4
Noizean behin	29.8	39.2
Sekula ez	64.7	47.4
ED/EE	0.2	-
<u>Maiztasuna adierazleak, trafikoa, bulegoa, ... Euskaraz:</u>		
Egunero	6.1	14.1
Noizean behin	29.6	40.6
Sekula ez	64.0	45.3
ED/EE	0.3	-
<u>Adostasuna biltzen duten esaldiak:</u>		
Ikasteko posibilitatea	93.5	97.4
Nere seme-alabek jakitea	76.5	74.8
Gobernuak gehiago gastatu	62.4	59.6
Asignatura	56.0	41.0
Seme-alaba ikastolara	51.2	25.8
Funtzionariek jakin dezaten	45.5	35.0
Etorkizunean Euskaraz bakarrik	13.7	8.4
Ikastera behartu	6.5	0.2
OINARRIA (3035)		(120)

177. Taula. Gobernuaren lehentasunezko gastuak.

	GUZTIRA NAFARROA %	ELITEA %
Etxebizitza publikoa	41.8	68.7
Obra inportanteak	15.9	8.9
Kultura-Kirola	18.2	16.7
Sanitatea	52.4	45.9
Hezkuntza	45.5	66.8
Enplegu sustapena	54.0	37.6
Komunikazioen garapena	7.3	7.2
Euskara bultzatzea	18.2	12.0
Ekonomiaren garapena	9.0	12.5
Hiritarren segurtasuna	20.7	19.7
	(3035)	(120)

Elitearen posizionamendua nafartar guztienarekin konparatuz, ondoko ondorioak atera ditzakegu:

Elitearen gizarte eskakizun nagusiak hauexek dira: etxebizitza publikoa (%68.7) eta hezkuntza (%66.8). Euskara bultzatzeak 7. lekua hartzen du %12arekin. Nafar guztien eskakizunak, berriz, enpleguaren sustapena eta sanitatea dira, Euskara bultzatzeak 7. lekua betetzen duelarik, %18.2arekin.

Eliteak gehiago entzuten du Euskaraz mintzatzen, baina nafar guztiak baino gutiago mintzatzen da hizkuntza honetan. Euskarazko telebista gehiago ikusten du, baina gutiago erabili gainerako komunikabideak.

Euskaraz gutiago mintzatu arren, karrika mailan pertzepzio haundiagoa du, bai liburusketan, nola propaganda edo adierazleetan.

Jarrera-eskalako esaldietan, agertzen diren baloreak nafar guztienak baino baxuagoak dira. Hala, nafar guztien %51.2ak bere seme-alabak Ikastola batera igorriko lituzkeen bitartean, elitean %25.8ak baizik ez luke horixe eginen. Azpimarkatzekoa da lehenago kokatzen dutela funtzionarioek Euskara jakitearen beharkizuna (%35.0), seme-alabak ikastola batera bidaltzea baino.

Eskakizunak Gobernuari. (Taula hauetan Deus gutikoa eta Indiferentea "deus gutikoa" epigrafean bildu dira garbiago ikusi ahal izateko).

178. Taula. Administrazioan Euskara indartu beharra.

	GUZTIRA NAFARROA %	ELITEA %
Garrantzizkoa	60.4	52.8
Deus gutikoa	39.6	47.2
OINARRIA	(3035)	(120)

179. Taula. Iharduera ekonomikoan Euskara indartu beharra.

	GUZTIRA NAFARROA %	ELITEA %
Garrantzizkoa	58.0	50.0
Deus gutikoa	42.0	50.0
OINARRIA	(3035)	(120)

180. Taula. Osasun erakundeetan Euskara indartu beharra.

	GUZTIRA NAFARROA %	ELITEA %
Garrantzizkoa	60.2	57.2
Deus gutikoa	39.8	42.8
OINARRIA	(3035)	(120)

181. Taula. Erabilpenari buruzko hiritarra kontzientzia-
tzeko kanpainak.

	GUZTIRA NAFARROA %	ELITEA %
Garrantzizkoa	63.7	60.0
Deus gutikoa	36.3	40.0
OINARRIA	(3035)	(120)

182. Taula. Euskara irakaskuntzan sartzea.

	GUZTIRA NAFARROA %	ELITEA %
Garrantzizkoa	61.0	55.5
Deus gutikoa	39.0	44.5
OINARRIA (3035)		(120)

183. Taula. Euskara kultur mailan sartzea (zinema, antzerkia, e.a.).

	GUZTIRA NAFARROA %	ELITEA %
Garrantzizkoa	63.4	59.2
Deus gutikoa	36.6	40.8
OINARRIA (3035)		(120)

Proposatutako eskakizunetan garbi ikus dezakegu eliteak, oro har, euskalduntze arloko eskari gehienak deus gutikotzat jotzen dituela. Bada bat %60a gainditzen duena, "erabiltzeari buruzko kontzientziazio kanpainei" dagokiena, eta bertze bat, "iharduera ekonomikoan euskara indartu beharra" %50na banatzen dena.

Nafar guztiak hartuta, ordea, puntuazioak altuxeagoak dira, ordena berdintsua bada ere: eskakizun gehien biltzen duena erabilpenari buruzko kontzientziazioa da (%63.7) eta gutiena iharduera ekonomikoari dagokiona (%58).

ONDORIO GISA, erran daiteke nafar elitea nafarren orokortasuna baino erdaltzaleagoa dela. Hiritarra goa izanik erdaldunagoa da, Euskarazko telebista gehiago ikusi eta karrika mailan nafar gehienek baino euskararen pertzepzio haundiagoa izan arren. Euskararen aldeko eskakizuna tikia da (%12) eta hartarik laurden batek baizik ez lituzke bere seme-alabak Ikastola batera eramane. Hala ere, erdiak baino gehiago eskatzen dio Gobernuari Euskarazko ihardueren sustapena eta hizkuntzari buruzko kontzientziazioa.


Behar bada, Euskararen ikuspuntutik begiratuta, kezagarriena da muturrez mutur Euskararen aurka kokatzen den elitearen atal kozkor hori (%33.7).

VI. EUSKARA ETA BIZIMODUAK.


EUSKARAREN EGUNEROKO ERABILPENA, NAFARROAKO ZONALDEEN
ARABERA.

EUSKARAREN EGUNEROKO ERABILPENA

ERDAL PIRINIOA



LARRAUN-LEITZA



EUSKARAREN EGUNEROKO ERABILPENA

SAKANA

%100a DENA

24.4

%50a BAINO
GEHIAGO

3.7

%50a

5.1

%50a BAINO
GUTXIAGO

17.7

DEUS EZ

44.1

20 40 60 80 100 %

BIDASOALDEA

%100a DENA

44.1

%50a BAINO
GEHIAGO

20.5

%50a

10.1

%50a BAINO
GUTXIAGO



10.9

DEUS EZ

14.1


20 40 60 80 100 %

EUSKARAREN EGUNEROKO ERABILPENA




EUSKARAREN EGUNEROKO ERABILPENA

IRUÑEA ETA IRUÑALDEA



TUTERA ETA TUTERALDEA



EUSKARAREN EGUNEROKO ERABILPENA

TAFALLA ETA TAFALLALDEA

%100a DENA

0,9

%50a BAINO
GEHIAGO

0,9

%50a

0,6

%50a BAINO
GUTXIAGO

3,5

DEUS EZ

33,7

10

20

30

40

50

60

LIZARRALDEA

%100a DENA

0,5

%50a BAINO
GEHIAGO

1,2

%50a

1,2

%50a BAINO
GUTXIAGO

4,1

DEUS EZ

32,4

10

20

30


40

50


60

EUSKARAREN EGUNEROKO ERABILPENA

ZANGOZALDEA



LIZARRA HIRIA



VI. EUSKARA ETA BIZIMODUAK.

Kapitulu honetan, oinarri metodologikoetan agertzen zen item multzoan oinarri harturik osatu ditugun "bizimodu" taldeek Euskararen garapenari buruz erakusten duten jarreraren berri ematen dugu.

Lehen-lehenik "bizimodu" bakoitza definitzen dugu eta taldearen perfila zehazteko esanguratsuen gertatzen diren itemak.

1. Taldea: Ondoko itemek definitzen dute:
gogorkeriarik ez, bakean bizitzea,
tolerantea izatea, gauza xumeak, e.a.,
orden morala.

Tolerante-jarraitzaileak deitzen ditugu.

2. Taldea: Ondoko itemek definitzen dute: bizitzaz
gozatzea, gastatzea, kontsumitzea,
bizitza soziala.

Gozazaleak deitzen ditugu.

3. Taldea: Ondoko itemek definitzen dute: nahi
dudan bezalakoa izatea, askea eta
independiente izatea, errealitatea den
bezalakoa bizitzea.

Indibidualistak deitzen ditugu.

4. Taldea: Ondoko itemek definitzen dute:
gainerakoak bezalakoa izatea,
distziplina hierarkikoa, indarra
erabiltzea behar baldin bada.

Instituzionalistak deitzen ditugu.

5. Taldea: Ondoko itemek definitzen dute:
aitzinamendu zientifikoa, aldakuntza,
garapena, prestakuntza.

Tekniko-berrizaleak deitzen ditugu.

6. Taldea: Ondoko itemek definitzen dute: batean
gauza aunitz ez egitea, gauza bakarrean
aritzea eta ongi egitea, lanbidean ona
izatea.

Metodiko-setatsuak deitzen ditugu.

7. Taldea: Ondoko itemek definitzen dute: dinamikoa
izatea, erabakiak hartzea, errealista
izatea.

Dinamikoak deitzen ditugu.

184. Taula Bizimoduen perfila.

	GUZTIRA NAFARROA	TOLERANTE- JARRAITZAILEAK	GOZAZALEAK	INDIBI- DUALISTAK	INSTITU- ZIONALISTAK	TEKNIKO- BERRIZALEAK	METODIKO- SETATSUAK	DINAMIKOAK
<u>Sexua:</u>								
Gizonezkoa	48.3	38.6	50.4	55.0	47.3	48.7	49.9	47.3
Emakumezkoa	51.7	61.4	49.6	45.0	52.7	51.3	50.2	52.7
<u>Adina:</u>								
16-20 urte	11.6	5.6	6.3	23.1	13.9	13.6	5.1	13.1
21-30 urte	21.3	13.8	18.1	38.8	11.2	23.6	18.5	26.3
31-40 urte	17.4	17.2	12.9	15.8	11.9	25.4	16.4	24.6
41-50 urte	13.3	15.5	11.5	8.4	11.8	14.3	17.1	15.3
51-60 urte	14.5	17.3	13.3	7.4	21.8	11.5	17.0	11.9
60 urtez goiti	21.9	30.5	36.9	6.5	29.4	11.6	25.9	8.7
<u>Habitata:</u>								
5.000 biztanlez beheiti	30.7	37.7	25.6	29.6	39.6	29.3	29.3	23.7
5.000 biztanlez goiti	40.5	38.2	39.3	37.3	38.5	41.3	43.1	45.6
Iruñea	28.3	24.2	34.6	33.1	21.8	29.3	27.6	30.7
<u>Jatorria:</u>								
Nafarroa	76.6	82.1	73.0	80.4	77.6	74.7	77.1	71.3
Euskadi	4.5	1.0	7.4	6.0	2.9	5.3	2.9	5.6
Gainerakoa	19.0	16.9	19.5	13.6	19.5	20.0	20.0	23.1
OINARRIA	(3035)	(400)	(478)	(433)	(472)	(383)	(451)	(417)

	GUZTIRA NAFARROA	TOLERANTE- JARRAITZAILEAK	INDIBI- GELAZALEAK	INSTITU- DUALISTAK	TEKNIKO- ZIONALISTAK	METODIKO- BERRIZALEAK	SETATSUAK	DINAMIKOAK
	%	%	%	%	%	%	%	%
-----*								
<u>Ikasketa maila:</u>								
Lehenak baino gutiago	19.7	25.5	22.3	10.9	36.8	10.5	21.0	8.3
Lehen ikasketak	23.2	28.8	29.5	11.3	24.0	20.7	30.0	17.0
O.H.O.	18.6	15.1	15.8	21.1	17.1	18.6	18.6	24.2
L.H.	11.1	7.2	5.6	20.4	7.0	11.1	9.6	17.7
B.B.B.	13.6	11.9	10.3	19.8	6.3	22.2	9.8	17.1
Erdi mailako Unibertsit.	8.0	7.7	9.4	7.4	5.0	8.8	8.1	10.0
Goi mailako Unibertsit.	5.8	3.9	7.0	9.1	3.8	8.2	2.9	5.7
<u>Kultur maila:</u>								
Behekoa	24.1	26.9	33.5	8.2	40.4	14.3	28.4	13.3
Erdikoa	47.2	47.5	42.2	47.1	45.2	45.3	52.1	51.8
Goikoa	28.6	25.6	24.3	44.7	14.4	40.4	19.5	34.9
<u>Gizarte statusa:</u>								
Behekoa	15.5	19.9	26.2	5.1	21.6	6.3	20.6	6.1
Erdi-behekoa	24.8	27.6	22.3	22.7	36.7	21.6	22.5	19.5
Erdikoa	30.8	27.4	29.0	35.8	23.4	27.9	34.9	37.8
Erdi-goikoa	20.8	19.2	17.3	25.6	11.5	33.9	15.7	25.5
Goikoa	8.0	5.9	5.3	10.9	6.8	10.3	6.4	11.2
<u>Elkarte maila:</u>								
Behekoa	54.1	49.8	54.0	53.1	62.1	52.1	49.4	45.8
Erdikoa	30.6	35.3	27.4	26.2	29.3	31.6	33.9	31.4
Goikoa	15.3	14.9	8.6	20.7	8.6	16.3	16.7	22.8
<u>Elitea:</u>								
Bai	4.0	3.7	3.8	2.1	3.2	8.1	5.0	2.2
OINARRIA	(3035)	(400)	(478)	(433)	(472)	(383)	(451)	(417)

"Groso modo", ''bizimodu'' talde
bakoitzaren ondoko perfila osatzen ahal dugu.

Tolerante-jarraitzaileak emakumezkoak
dira maizenik, 40 urtez goitikoak, gehienbat
nekazal girokoak (5.000 biztanlez beheitiko
herrietan) eta beheko ikasketa mailakoak.

Gozazaleak Iruñean aurkitzen dira
gehienbat. 40 urtez goitikoak ohi dira, 60 urtez
goitikoek talde kozkorra osatzen dutela. Haien
gizarte statusak beherako joera du eta halaber
haren elkartze mailak.

Indibidualistak gizasemeak dira bereziki.
40 urte baino gazteagoak izaten ohi dira,
hiritarrak, goiko kultur mailakoak eta goiko
gizarte statuskoak.

Instituzionalistak, berriz, adin talde
guztietan aurkitzen ahal dira. Garrantzia dute
5.000 biztanlez beheitiko herrietan. Haien
ikasketa, kultur eta elkartze maila behekoa da eta
erdi-behekoa, ordea, haien gizarte statusa.

Tekniko-berrizaleak 20-50 urte bitartean agertzen dira batez ere. Haien kultur maila eta gizarte statusa altua da. Hau da elitean presentziarik haundiena duen taldea.

Metodiko-setatsuak 40 urtez goitikoak izaten ohi dira. Haien ikasketa maila behekoa da eta erdikoa, berriz, haien kultur eta elkartze mailak.

Azkenik, dinamikoak, joeraz, 40 urtez beheitikoak dira. Haien gizarte-statusa erdi-goikoa da eta elkartze maila goikoa dute.

185. Taula Eskakizunak Administrazioari, bizimodu
arabera.

	GUZTIRA NAFARROA	TOLERANTE- JARRAITZAILEAK	GOZAZALEAK	INDIBI- DUALISTAK	INSTITU- ZIONALISTAK	TEKNIKO- BERRIZALEAK	METODIKO- SETATSUAK	DINAMIKOAK
	%	%	%	%	%	%	%	%
Etxebizitza publikoa	41.8	37.8	39.1	49.6	38.6	41.8	42.4	43.7
Obra inportanteak	15.9	20.4	17.9	10.7	16.0	12.1	20.9	12.7
Kultura-Kirola	18.2	15.9	14.7	27.5	17.2	15.3	15.0	22.3
Sanitatea	52.4	58.6	54.0	40.7	57.2	55.2	53.4	47.7
Hezkuntza	45.5	47.0	51.1	42.0	42.0	47.7	45.7	42.8
Enplegu sustapena	54.0	51.9	43.9	62.1	50.9	62.4	51.8	57.1
Komunikazioen garapena	7.3	7.6	5.9	5.3	10.3	6.3	9.0	6.2
Euskara bultzatzea	18.2	17.1	13.4	29.3	12.2	19.0	12.9	25.0
Ekonomiaren garapena	9.0	7.6	10.0	10.2	4.9	9.7	11.8	8.9
Hiritarren segurtasuna	20.7	23.2	24.1	12.8	21.4	23.0	22.5	17.6
ED/EE	2.1	1.5	4.1	0.1	4.4	0.7	1.5	1.5
OINARRIA	(3035)	(400)	(478)	(433)	(472)	(383)	(451)	(417)

Hiru taldek sanitateari ematen diote lehentasuna eta lauk enplegu sustapenari. Horrek erakusten digu adinaren eta bizimoduen artean dagoen lotura zuzena, adinean goti egin arauz -lehenago ikusi bezala- sanitateari ematen baitzaio lehentasuna eta, aldiz, beheiti joanez gero, enpleguari. Hala ere, Euskarari dagokionean, lau taldeetarik bik banaz bertzekoaz goiti ematen diote garrantzia hura bultzatzeari. Alde batetik indibidualistak dira (%29.3), eskakizunen artean Euskara 6. lekuan paratzen dutenak, eta bertzetik dinamikoak, %25arekin beren eskakizunen 5. lekuan jartzen baitute.

186. Taula Euskararekiko jarrera.

	GUZTIRA NAFARROA	TOLERANTE- JARRAITZAILEAK	GOZAZALEAK	INDIBI- DUALISTAK	INSTITU- ZIONALISTAK	TEKNIKO- BERRIZALEAK	METODIKO- SETATSUAK	DINAMIKOAK
	§	§	§	§	§	§	§	§
Aurkakoa	29.7	38.0	37.1	17.7	28.6	30.9	31.9	23.2
Axolagabea	22.2	21.7	19.8	21.0	23.2	21.5	26.4	21.4
Aldekoa	35.6	29.2	35.0	39.6	33.4	37.8	33.3	40.9
Oso aldekoa	12.6	11.1	8.1	21.7	14.8	9.9	8.4	14.6
OINARRIA	(3035)	(400)	(478)	(433)	(472)	(383)	(451)	(417)

Euskararekiko, bizimoduen talde ezberdinek jarrera diferenteak erakusten dituzte, banaz bertzekotik sobera urruntzen denik ez bada ere.

Aurkako jarrera gehien agertzen duen taldea tolerante-jarraitzaileena da, horietan %59.7 ez-alde azaltzen dela. Protzentaia horretatik %38a ''aurkako'' taldean lerrokatzen da.

Metodiko-setatsuen taldea ere ez-aldeko jarreretan dago %58.3an, baita gozazaleena ere, %37.1ean aurkako jarrera erakusten duena.

Instituzionalistek nafarren banaz bertzekoaren antzeko jarrera dute, baita tekniko-berrizaleen antzekoa ere.

Indibidualistak dira aldekoenak, %61.3an aldeko jarrera eta, gainera, %21.7an oso aldekoa erakusten dutela. Dinamikoen taldea %55.5ean da aldekoa.

VII. ONDORIOAK.

VII. ONDORIOAK.

Atal honek laburbiltzen ditu Ikerketa honi buruzko ondoriorik esanguratsu eta interesgarrienak.

EUSKARAREN ERABILPENA.

- Nafarren %9a egunero mintzatzen da Euskaraz eta bertze %6.7a maiz.
- %38ak ez du sekula ere Euskaraz mintzatzen aditzen.
- 5.000 biztanle baino guttiagoko nafar herrietan, Euskararen eguneroko erabilpenak goiti egiten du %18.6raino.
- Ikerketan erabili diren Nafarroako zonaldeei dagokienez, Euskararen eguneroko erabilpenik haundiena Larraun-Leitzan (%80.6), Bidasoaldean (%76.2) eta Baztan (%72.0) gertatzen da. Muturrean Tuteran (%0.3), Tafalla (%0.9) eta Zangoza (%1.0) daude, horiek baizik baizik ez baitira Euskaraz egunero mintzatzen direla ihardesten dutenak.
- ETB ikusten duela %18.9ak erantzuten du eta %4.8ak, berriz, Euskarazko irratia. %3.5ak irakurtzen du zerbait euskaraz egunero egunkarietan.

- Euskara idatziarekiko harremana (liburuskak, txartelak, propaganda, iragarkiak, indikatzaileak) tikia da. Biztanleriaren %60ak baina gehiago ez du sekula ere honelakorik ikusten. Portzentaia honek goiti egiten du, normala denez, euskal zonaldeetan eta beheiti, ordea, erdaldunetan.
- Datuek erakusten dutenez, nafarren %15a, hor nonbait, mintzatzen da Euskaraz, Foru Komunitateko Iparraldean oso portzentaia altuetara eta Erribera aldean hutsaren hurrengoetara iragaten delarik.
- Nafartarren talde haundi batek -%38.0ak- ez du inoiz ere Euskararekin inolako kontakturik izaten.
- Komunikabideak guti erabiltzen dira, idatzizkoak bereziki. Erran daiteke Euskara idatziarekiko kontaktuak ez duela bat egiten, ezta gehien mintzatzen den eskualdeetan ere, Euskara mintzatuaren portzentaiarekin.

ESKAKIZUNAK ADMINISTRAZIOARI.

- Elkarrizketatuen %18.2ak uste du Euskarak lehentasunezko gastua behar duela izan. Gastuen zerrendan zazpigarren lekua hartzen du 10en artean, lehendabizikoa "enpleguaren sustapena" delarik.
- Adinez zein eta gazteagoa izan, lehentasun haundiagoa ematen zaio Euskarari: gazteenen %27.6ak hala eskatzen du, 51-60 urte bitartekoen artean indizea %9.4era jausten dela. Horixe da hain juxtu ere aurkakoen dagoen adin taldea, ikerketan zehar ikusten ahal denez. Adin talde bakoitzak eskakizun mota ezberdina du: gazteenek, enplegua; helduek, hezkuntza; zaharrek, sanitatea.
- Euskararen eskariak lotuera du kultur mailarekin: zein eta maila haundiagoa izan, aldeketasun biziagoa biltzen du Euskararen garapenak (%25.1). Alderantziz, maila tikiagoa delarik, aldekoak gutiago dira (%9.1). Kontutan hartu beharra da Euskara dela kultur mailarekin lotuerarik hertsiena duen eskaria.
- Euskara ez da lehentasunezko eskakizuna Nafarroan, baina badu garrantzia, batez ere gazteenen artean, zonalde euskaldunetan eta goiko kultur mailetan. Eskakizunek lotuera zuzena dute biztanleriaren norbanakoen eta belaunaldikoen egoerekin.

EUSKARAREKIKO JARRERA.

- Euskararekiko jarrera-eskalak nafartarren ondoko banaketa erakusten digu:

		%	
Aurkako Jarrera	29.7	}	Ez-aldekoa
Jarrera Axolagabea	22.2		
Aldeko Jarrera	35.6	}	Aldekoa
Oso Aldeko Jarrera	12.6		

- Talderik aldekoenak 40 urtez beheitikoak, erdiko eta erdi-goiko gizarte statuskoak, erdiko kultur mailakoak, Nafarroako Iparraldekoak (Larraun-Leitza, Sakana, Bidasoaldea, Baztan eta Ultzama), batez ere Bidasoaldekua, H.B., E.A.J. eta E.A.ko boto-emaileak direla erran daiteke.
- Aurkakoenak, ordea, 40 urtez goitiko taldeak, hirikoak, behe edo goiko statuskoak, eta Nafarroako Hegoaldeko zonaldeetakoak (Tutera, Tafalla eta Zangoza).

ERDAL PIRINIOA.

- Banakuntza dago Euskararekiko jarreretan, gazteenen artean aldeko joerek indarra badute ere. Euskararen erabilpen eskasa: %1.7a mintzatzen da egunero. Euskararen sustapena %36.4ak eskatzen du gazteenen artean (21-30 urte) eta bakar-bakarrik %1.9ak 60 urtez goitikoan artean. Honek garbi adierazten du belaunaldien arteko ezberdintasuna. %65.7ak uste du Gobernuak bultzatu behar duela Euskara Erdal Pirinioan.
- Biztanleriaren %50ak baino gehiago proposatzen dituen Euskararen aldeko ekintzetariko batzuk hauexek dira: elebitasuna Administrazioan (%52.6), Euskararen erabilpenari buruzko kontzientziazio kanpainak (%55.4), Euskara ikastetxeetan eta, oro har, hezkuntza sisteman sartzea (%54.9), zinema, antzerki, e.a.en mailan bultzatzea (%54.9).

LARRAUN-LEITZA.

- Zonalde honek Euskararen oso aldeko jarrerak erakusten ditu: %78.2a alde kokatzen da, oso aldekoen %29.6a barne dela.
- Euskararen eguneroko erabilpen haundia: %80.6ak egunero erabiltzen du.
- Euskara sustatzeko gastuaren eskakizunak beheiti egiten du adinaren arabera, nahiz eta adin talde guztietan altua izan. 16-20 urte bitartekoaren artean %63.3a harrapatzen du.
- Zonalde honetan, Euskararen aldeko neurriei buruzko galderek erabateko euskalduntzea mahairatzen zuten, "erabateko" hitza aipatzerakoan Euskararen erabilpen bakartzat planteiatzen zelarik. Ihardespenen %50az goiti egiten zuten neurriak ondokoak ziren: iharduera administratiboaren erabateko euskalduntzea (%52.6) eta komunikabideetan Euskararen portzentaia haundiagoa (%62.8).

SAKANA.

- %78.3ak du Euskararen aldeko jarrera, gainera, %28.7ak oso aldeko jarrera duela.
- Euskararen erabilpena inguruko zonaldeetakoa baino tikiagoa da. %39a egunero mintzatzen da Euskaraz eta %14.6ak maiz egiten du. Euskal komunikabideen erabilpena altua da mintzatzeko ohituraren aldean.
- Euskara sustatzeko eskakizuna zabala da. Zonalde honetan, garrantzia du batik-bat 41-50 urte bitarteak, talde honek %51etan eskatzen baitu "Euskara bultzatzea".
- Kultur ihardueraren erabateko euskalduntzea %56.3ak eskatzen du eta komunikabideetan Euskarak portzentaia haundiagoa izatea, berriz, %59.4ak.

BIDASOALDEA.

- Euskararen oso aldeko zonaldea dugu: %84.2a talde horretan sartzen da, "oso aldekoak" %42.3 direla. Nafarroako zonaldeetan, Euskararen sustapenaren aldekoena da.
- %72.6a egunero mintzatzen da zerbait Euskaraz eta %11.3ak noizean behin egiten du. Komunikabideen erabilpenaren indizea ere altua da.
- Euskara sustatzeko eskakizun haundia dago (%45.2). Gazteenen artean lehen eskakizuna da, %68.2ra ailegatzen delarik.
- Zonalde honetan, Euskarari dagozkion eskakizunak, %50az goiti egiten dutenak, ondokoak dira: iharduera administratiboaren erabateko euskalduntzea (%63.7), iharduera ekonomikoaren erabateko euskalduntzea (%62.5), kultur ihardueraren erabateko euskalduntzea (%62.1), Euskararen portzentaia haundiagoa komunikabideetan (%66.1) eta hezkuntzaren erabateko euskalduntzea (%55.2).

BAZTAN.

- %73.3ak Euskararen aldeko jarrera du eta haietarik %21ak "oso aldekoa".
- %72a egunero mintzatzen da Euskaraz eta %11.7a noizean behin.
- Lehentasunezko gastuetan, Euskara bultzatzeak 4. lekua hartzen du, %30.8arekin. 16tik 20 urte bitartera eskakizuna %52.0koa da.
- Elkarriketatuen erdiak -%49.1ek- uste du Gobernua "zerbait" arduratzen dela Euskara sustatzeaz.
- Eskakizun zehatzen artean, iharduera administratibo, ekonomiko eta kultur arlokoen eta hezkuntzaren erabateko euskalduntzea ez da %50era ailegatzen. Komunikabideetan euskararen presentzia haundiagoak, ordea, gorago egiten du.
- Zonaldea erabat euskalduntzeko eskakizuna nagusia ez izateak eskualde honetako elebitasunerako joera erakusten du.

ULTZAMA-ANUE-IPAR PIRINIOA.

- %69.9ak Euskararen aldeko jarrera du, aurkako jarrera bat ere zabalduz ez dagoela (%8.1).
- %20.2a egunero mintzatzen da Euskaraz eta %13a noizean behin, hortaz, biztanleriaren herenak erabiltzen du. Komunikabideen erabilpena murrizta da.
- Euskara sustatzeko eskakizunak indize altuak biltzen ditu 31 eta 40 urte bitartean (%51.2). 51 eta 60 urte bitartean, ordea, beheiti egiten du nabarmen ((%3.1).
- Euskarari dagozkion eskariak apalduz daude hemen, joerak baitira orain aipatzen direnak. Euskara hutsezko hezkuntzara eta iharduera ekonomiko eta administratiboa euskalduntzera jotzearen aldeko eskariak biztanleriaren heren batek egiten ditu, guti goiti-beheiti. Hala ere, alfabetatu eta kontzientziazioaren aldeko neurriek %60tik goiti egiten dute. Honek erakusten du Euskara berreskuratzeko eskari garrantzitsua dagoela.

IRUÑEA ETA IRUÑALDEA.

- Euskarari dagokionez, antzeko banaketa du Nafarroako orokortasunarenarekin: %51.1ak aldeko jarrera du.
- Biztanleriaren %3.7a egunero mintzatzen da Euskaraz eta %8.4a noizean behin. Euskarazko komunikabideen erabilpena tikia da.

- Iruñean, Euskara bultzatzeko eskaria dago, Administrazioari luzatzen zaizkion eskakizunetan %60tik goiti egiten dutenek frogatzen dutenez:

Administrazioan elebitasuna indartu beharra: %66.

Iharduera ekonomikoan elebitasuna indartu beharra: %63.1.

Osasun erakundeetan elebitasuna indartu beharra: %64.0.

Erabilpenari buruzko kontzientziazioa: %67.2.

Zinema, antzerki, e.a.en mailan indartzea: %66.4.

- Iruñean eta Iruñaldean, euskara guti erabili arren, gizarte iharduera mailan Euskara sustatzeko eskari garbia dago.

TUTERA ETA TUTERALDEA.

- Euskararen aldeko ez den jarrerak %70.3tik goiti egiten du, aurkakoen taldea garrantzizkoa dela: %57.2.
- Euskararen erabilpen oso urria: %0.9a mintzatzen da. Haletarik, %0.3a egunero mintzatzen da. %62.5ak ez du sekula ere aditzen.
- Euskara bultzatzeko oso eskari urria dago: %4.1.
- Gobernuari egiten zaizkion eskakizun proposamenak doi-doiean ailegatzen dira biztanleriaren laurdenera. 21-40 urte bitartean altuxeagoa da eta urri-urria gazteenen artean.
- Tuterako zonaldea da Euskarari buruzko eskakizun eskasena egiten duena. Kontutan hartu behar da, gainera, biztanleriaren erdia baino gehiago aurkakoa dela.

TAFALLA ETA TAFALLALDEA.

- %60.2a euskararen ez aldekoen artean lerrokatzen da. Aitzitik, %9.1ek "oso aldeko" jarrera erakusten du.
- Euskararen erabilerak oso murrizak dira: %0.9ak egunero mintzatzen dela dio eta %2.8ak noizean behin. %49.5ak ez du sekula ere euskaraz aditzen.
- Euskara bultzatzea eskatzen dutenak %13.5a dira. 16-20 urte bitartean %29.4era egiten du goiti eta gero beheiti adinean aitzina egin ahala.
- Jarrera-eskalako taldeei dagokienez, "oso aldekoek" Euskara eskatzen dute lehen-lehenik. Honek erakusten du gaiarekin sentsibilitasun haundia duen gutiengoa dela.
- Euskararekin zerikusirik duten gaiei buruzko kontzientziazio eta sustapenaren aldeko eskeak %40 bat egiten dute, Tuterako zonaldean baino gehixeago. 21-40 urte bitartean, alabaina, %50ez goiti egiten dute.
- Bi talde garbiak direla erran daiteke: bat Euskararengandik hagitx urrun dago eta biztanleriaren %60ak osatuko luke; bertzea hurbilago dago, bereziki gai honi buruzko eskakizun haundiak egiten dituen "oso aldekoen" taldea.

LIZARRALDEA.

- Nafarroako banaz bertzekoaren antzeko jarrerak: erdia aldekoa eta bertze erdia ez aldekoa.
- Euskararen erabilpena tikia da. %50ak ez du sekula aditzen eta %1.8a egunero mintzatzen da.
- %80ak inguru ez du inoiz inolako harremanik Euskara idatziarekin.
- Euskara sustatzeko eskaria Nafarroako banaz bertzekoa baino tikiagoa da -%7.6-, 30 urtez beheitikoen artean goiti egiten badu ere -%14.3-.
- Kontzientziazio kanpainak inportantetzat jotzen ditu biztanleriaren erdixeak, aldekoenak 21-30 urte bitarteko taldea delarik.
- Euskarari buruzko eskariak arras altuak dira "oso aldekoen" artean, eta alderantzizkoak aurkako jarrerako taldeetan.

ZANGOZA ETA ZANGOZALDEA.

- %60.5a ez-aldeko jarreretan kokatzen da. Aitzitik, "oso aldekoak" %10.7a dira.
- Euskaraz egunero mintzatzen direnak %1a dira eta sekula ere aditzen ez dutenak %58.3a dira. Komunikabideen erabilpena eskasa da.
- Gastuen lehentasunei doakienetan, Euskarak 7. lekua hartzen du, %16.1ekin. Indar berezia du eskari hau 31-40 urte bitartekoen artean, %32.1era ailegatzen baita.
- %40ak baino piska bat gehiagok uste du Euskararen erabilpen eta ikasketari buruzko kontzientziazioa garrantzizkoa dela, 21 eta 40 urte bitartean %50az goiti egiten duela. Portzentaiak antzekoak dira ihardueren sustapenaz galdegiten zaielarik.
- Euskararekiko jarreraz ohartzen baldin bagara, bi talde agertzen zaizkigu garbiki eskariei dagokienez: "aurkakoak" Euskarazko iharduerak bultzatzearen kontra agertzen dira. Beraz, bi talde antzeman daitezke gai hau dela eta, bakoitza mutur batean.

LIZARRA.

- %59.6ak ez-aldeko jarrerak ditu eta %40.4ak aldekoak, oso aldekoak diren %11.2a barne direla.
- Bada euskararen erabilpenik, egunero edo noizean behin mintzatzen direnak %9.3 baitira. Komunikabideen erabilpena arrunt tikia da.
- Euskara bultzatzea %23.6ak hautatzen du. Kopuru hau %40.6ra ailegatzen da 31 eta 40 urte bitartean.
- Eskakizunetan ere talde horixe da portzentaia altuenetara ailegatzen dena. Hala, euskarari buruzko kontzientziazio kanpainak -nafar hizkuntza gisa-, %50.3ak inportantetzat jotzen ditu, eta %62.5ak 31 eta 40 urte bitarte horretan. Bai kontzientziazio kanpainen bai Euskarari buruzko iharduketen sustapenaren eskakizuna biztanleriaren %50ak inguru hartzen du ontzat. Portzentaia hau Lizarra inguruko zonaldeetakoa baino haundiagoa da.
- Euskararekiko jarrera-eskalak, eskarien parean jartzerakoan, bi taldeen presentziaz oharterazten gaitu: bat "oso aldekoa" eta bertze bat "aurkakoa", hau ere garrantzitsua eta jarrera kontrajarriak dituztenak.

ELITEA.

- "Elite"tzat hartzen dugu sozio-ekonomia eta kulturaren aldetik halako ezaugarri bereziak dituen pertsona taldea (IKUS V. kapitulua).
- Haietarik %68.2a ez da euskararen alde agertzen eta hauen barrenean %33.7ak aurkako jarrera du.
- %10.1a euskaraz mintzatzen da eta %27.5 baizik ez dira ETB sekula ikusten ez dutenak. Euskararen pertzepzioa, karrika mailan bederen, biztanleriaren osotasunarena baino haundiagoa da.
- Gobernuari egiten zaizkion gastuen eskakizunetan, elitearen %12ak eskatzen du Euskara bultzatzea, nafar guztien %18.2aren aitzinean.
- Ezberdintasunak ezberdintasun, Euskararen inguruko iharduerak eskatzerakoan, eritziak berdintsuagoak dira. Gutxi goiti-beheiti, elitearen kasuan, %50a alde agertzen da eta bertze %50a aurka administrazioan eta iharduera ekonomikoan euskara bultzatu behar ote den galdegiten zaienean. %60a osasun erakundeetan indartzearen alde dago eta %55a hezkuntzan.
- Horrenbertzez, ondorio gisa erran dezakegu eliteak eritzi zatikatua duela Euskararen sustapenari dagokionez, nahiz eta kontutan hartu beharra dagoen %33.7a aurka kokatzen dela.

BIZIMODUAK.

- Ikerketak garatzen dituen zazpi bizimoduek (IKUS VI. kapitulua) perfil sozio-ekonomiko eta demografiko ezberdinak dituzte. Gastuei buruzko haien eskakizunei dagokienez ere diferentziak agertzen dituzte, batez ere Euskararen sustapena aipatzen zaielarik. Berezi "indibidualistak" (%29.3) eta "dinamikoak" deitu taldeak dira Euskararen eskakizunik ugariena egiten dituztenak. Biak talde gazte eta berrizaleak dira. Honek erakusten du, Euskadin ez bezala -euskara bizimodu kontserbadoreen partaide baita han-, Nafarroan ez dela horrelakorik gertatzen.

- "Oso aldeko" jarrera "indibidualista" -%21.7, oso aldekoak- eta "dinamiko" -%40.9, aldekoak- taldeetan aurkitzen dugu. Talderik aurkakoenak "tolerante-jarraitzaileak" -%38, aurka- eta "metodiko-setatsuak" -%31.9, aurka- dira.

LABURTUZ.

- Nafarroa bizigune heterogeneoa da Euskararen erabilpen eta harekiko jarrerari dagokienez.
- Erabilpenetan, Bidasoaldea, Larraun-Leitza eta Baztan dira gaurregun Euskara gehien erabiltzen duten zonaldeak.
- Sakanan eta Ultzama-Anue-Ipar Pirinio aldean Euskara gutiago erabiltzen da.
- Nafarroako gainerako zonaldeetan Euskararen erabilpena minimoa da.
- Euskararen erabilera hauek ez dakarte ahozkoaz bertzeko bide gisa erabiltzea. Zonalde gehienetan, Euskarazko komunikabideen erabilpena minimoa da, baita Euskararen presentzia karrika mailan ere (txartelak, liburuskak, trafiko seinaleak, e.a.). Hortaz, Euskaraz mintzatuta ere, ahozkoa ez den komunikazioa gehienbat erdaraz burutzen da.
- Iruñea erdiko puntua litzateke Euskararekiko jarrerari dagokienez. Hegoaldera urrundu ahala, jarrera aurkakoagoa da. Iparraldera egin ahala, jarrera aldekoagoa da. Hala, Bidasoaldea da aldeko jarrerarik nabarmenena agertzen duen zonaldea, eskualdeko gizarte iharduera gehien erabateko euskalduntzea ere eskatzen duela.

- Bertze zonaldeetan, Sakanan eta Larraunen bezala, aldeko jarrera garbiak agertu arren, Euskararen "oso aldekoen" taldeak ez du hainbertzeko garrantzirik. Hemen eskakizunek Euskara bultzatzera jotzen dute, baina gaztelaniarekin batera, zonalderako nola-halako elebitasuna eskatuz. Eskualde hauetan kontutan hartu beharra dago 30 urtez beheitiko biztanlegoa zorrotzagoa dela bere eskakizunetan nagusiagoak baino.
- Baztan eta Ultzaman jarrera apalagoa da. Bi zonalde hauetan axolagabe gehiago dira arestian aipatuetaoen aldean.
- Erdal Pirinioak ezberdintasun garrantzitsuagoa agertzen du bere eskakizunetan zein eta zer adinetakoak diren elkarriketatuak. 30 urte baino gaztegoek eskakizun ugari egiten dute, baina horiek kasik desagertzen dira zaharren artean.
- Iruñean eta Iruñaldean euskara guti erabili arren, eguneroko ihardueretan erabiltzearen aldeko jarrera da nagusi, jarrera hori pasibo samarra izanagatik.
- Hegoaldeko zonaldean, oro har, bi atal berezi behar dira: batean, Iruñetik hurbilen dagoen horretan (Zangoza, Tafalla eta Lizarra), euskararen kontrako taldeak aurkitzen dira "oso aldekoak" diren bertze batzuekin batean. Azken talde hauek gazteek osatzen dituzte batez ere, 21-40 urte bitartekoek, Euskarari buruzko eskakizun haundiak egiten dituzte eta elkartzeko eta kultur maila haundikoak dira, baita alderdi nazionalistetatik hurbilekoak ere.

- Tuter aldean, berriz, talde hauek ez dira inon ere somatzen eta gehiengoak (%50a baino gehiago) euskararen aurkako jarreretan lerrokatzen da. Beraz, Euskararen mundutik hagitik urrun dagoen zonaldea da.
- Nafar eliteak jarrera zatikatua du Euskarari doazkionetan. Heren batek oso aurkako jarrera agertzen du eta guti dira "oso aldeko" jarrera erakusten dutenak. Erran daiteke Euskararen aitzinean elite honen jarrera nagusia axolagabea dela.
- Bizimoduak dagokienez, Euskadin ez bezala, Euskarak ez du sustraitzerik talderik kontserbatzaileen artean. Bai, ordea, berrizale eta gazteenetan. Hala, "indibidualista" deitu talde horrek, batez ere gazte jendeak osatzen duenak, "oso aldeko" jarrera du %21.7an. "Dinamiko" deitu taldeak ere "aldeko" jarrera du %40.9an.

VIII. AHOLKUAK.

VIII. AHOLKUAK.

- Lehen-lehenik konstarazi behar da Nafarroan Euskeraren mundua hagitz errealitate konplexua dela, jarrera ezberdin aunitz, are kontrajarriak ere, aurkezten dituen.

- Hori dela medio, jarrera horiek diren bezalakoak hartu beharra, muturreko joerak izanik ere, defendatzen dituztenak katalogatu nahi izan gabe. Horixe izanen litzateke lehen aholkua.

- Aniztasun horren ondorioz, ez da kontseilugarria Euskararen gaineko politika globaletan hasia Iruñean oinarritutako ikuspegi batetik, hau da, nafar lurraldeak gizarte eta hizkuntza mailan duen dibertsitatea kontutan hartu gabe.

- Horregatik, proposamenak azterketa honetan aintzat hartu diren zonaldeetan oinarriturik adierazten dira.

- ERDAL PIRINIOA Euskara guti goiti-beheiti berriki galdu duen zonaldea da. Hortaz, nolabaiteko oroimen kolektiboa gelditzen da. Honek baduislada gazteenen artean, hau da, 40 urtez beheiti eta bereziki 30 urtez beheiti, dagoen eskakizun maila haundian.

- Beharrezkoa dirudi elebitasuna administrazioan, iharduera ekonomikoan eta osasun erakundeetan bultzatzeak. Hala ere, kultur iharduerak eta, hezkuntza edo ikastetxe mailan, zinema, antzerki, musika e.a. bezalakoak dira gehien eskatzen direnak.

- Erabilpenari buruzko kontzientziazio kanpaineek eskari haundia biltzen dute 40 urtez beheitikoen artean. Beti ere, oharterazi beharra dago 40 urtez goiti jarrerak axolagabeagoak direla.

- LARRAUN-LEITZA ahozko euskararen erabilpen haundiko zonaldea da, hots, biztanleriak harreman zuzena eta egunerokoa du hizkuntzarekin. Haatik, idatziz guti erabiltzen da. Beraz, administrazioaren lana izan behar litzateke idatzizko Euskararen erabilpena bultzatzea, bai komunikabideetan, bai kale mailan (propaganda, txartelak, iragarkiak, e.a.).

- Esklusiboki ez bada ere, Euskara ekonomi ihardueran (aurrezki kutxak, banketxeak, e.a.), hezkuntz ihardueran, administrazioan eta kultur ihardueretan erabiltzea ere eskatzen da.

- 50 urte bitartean eskari haundia dago, bereziki gazteen artean.

- Aipatu beharra dago eskakizun hauek garrantzizkoak direla biztanleriaren erdiarendako, hor nonbait. Gainerako erdiak deus gutikotzat jotzen ditu.

- SAKANAn, ahoz bederen, gutiago erabiltzen da Euskara Larraun aldean baino, hemen etorkin gehiago izateaz gain, pasalekua baita. Hala ere, erabateko euskalduntzeari buruzko eskakizunak antzerakoak dira Larraungoekin. Iharduera administratiboa, ekonomikoa eta hezkuntz arloa erabat euskalduntzeko eskariak biztanleriaren erdixea harrapatzen du eta %60a 41 eta 50 urte bitartekoen artean. Azpimarkatzekoa da alor horietan gazteagoen eskaria apalagoa dela.

- Administrazioak gehiago garatu behar lituzke alde honetan euskarazko kultur iharduerak. Gauza bera erran daiteke Euskara idatziaren erabilpenaz, adin talde guztietarako.

- BIDASOALDEA ahozko Euskararen erabilpen haundiko zonaldea da eta idatzizkoa gehien erabiltzen duena. Halaber, "oso aldeko" jarrera gehien erakusten duen zonaldea da (%42.3). Eskari maila altuena egiten duen zonaldea da: gizarte iharduerak erabat euskalduntzeko eskakizunak %60a harrapatzen du. Gainera, %32ak uste du Administrazioa ez dela "bat ere" Euskaraz arduratzen.

- Hori dela eta, inon baino eginahal gehiago egin behar da hemen Euskara alor ezberdinetan sartzeko. Hezkuntza erabat euskalduntzeak, adostasun gutiago biltzen badu ere, %50az goiti egiten du.

- Neurrien onespena zabala izanen litzateke adin talde guztietan.

- BAZTAN ahozko Euskararen erabilpen haundiko zonaldea da, idatzizkoaren erabilpena urria bada ere.

- Beharrezkoa da bai komunikabideak bai karrika mailako presentzia (adierazleak, txartelak, iragarkiak, e.a.) bultzatzea.

- Gizarte iharduerak erabat euskalduntzeko eskakizunak bertze euskal zonaldeetakoak baino apalagoak dira hemen. Gazteenek -30 urte bitartean- %50a gainditzen dute beren eskakizunetan. Gero, adinean goiti egin arauz, beheiti egiten du eskariak eta berriz ere goiti 60 urtez aitzina. Administrazioak eskualde honetan aitzina eraman beharreko neurriak zuhurragoak izan beharko direla erakusten dute datuek.

- ULTZAMA-ANUE-IPAR PIRINIOA deitu zonaldean ahozko Euskararen erabilpena %33 ingurukoa da eta hutsaren hurrengoa idatzizkoarena. Euskararekiko jarrera aldekoa da eta eskariak beheiti egiten du adinean goiti egin arauz, batez ere 51-60 urte bitartean. Euskara hutsezko hezkuntzaren aldeko joera %32an kokatzen da, hor nonbait, 31-40 urte bitartean %60raino igotzen dela. Hala izanagatik ere, banaz bertzeko portzentaia baxutzat jotzen dugu, bertze iharduerei dagozkien eskakizunetan gertatzen den bezala. Hortaz, Euskarazko gizarte iharduerak gazteenei zuzendu beharko litzaizkieke batez ere, kontutan hartuta, gainera, horiek direla Euskara gutien erabiltzen dutenak.

- Hala ere, helduak alfabetatzeko kanpainei lotzea gehiengo haundi batek onartuko luke -biztanleriaren %70ak inguru-, onespen maila haundia izanen litzatekeela adin talde guztietan. Berreuskalduntze kanpainei ekitea ere begi onez ikusiko lukete alde honetako gehienek, bereziki 21-40 urte bitartekoek.

- IRUÑEA ETA IRUÑALDEAN, Euskararekiko jarrerari dagokionez, banakuntza Nafarroako joera nagusiaren antzerakoa da oso. %12ak badaki hemen mintzatzen. Lehen gomendioa karrika mailan (iragarkiak, txartelak adierazleak, e.a.) sustatzea litzateke. Euskara bultzatzeko eskari argia dago, bereziki 21-40 urte bitartean. Administrazioan, iharduera ekonomikoan (kutxak, bankuak, e.a.) eta osasun erakundeetan elebitasuna sustatzea eta Euskara erabiltzearen aldeko kanpainak dira gehien eskatzen diren neurriak.

- Euskara sustatzearen inguruko iharduerak garrantzizkotzat jotzen dituztenen portzentaia haundiek (%65a, goiti-beheiti) erakusten dute Iruñean eta Iruñerrian Euskara bultzatzeko prozesuaren aldeko jarrera dagoela. Kontutan hartu beharra dago aurkako jarrerak dituztenak ere ez direla erabat neurri hauen kontra agertzen, Nafarroako hegoaldeko bertze zonalde batzuetan gertatzen den ez bezala. Horrek erakusten du Iruñean eta Iruñaldean Euskarazko iharduerak oposizio eskasa bilduko dutela.

- TUTERA ETA TUTERALDEAK Euskararen aurkako jarrerarik nabarmenena agertzen du (%57.2). Euskararen erabilpena hutsaren hurrengoa da eta araberakoa hura sustatzeko eskaria. Puska batez goiti egiten du 21 eta 40 urte bitartean, baina gazteagoetan eskakizunak hagitx urriak dira. Arras zonalde zaila da. Hemen edozein iharduerak gaizki ikusia bil lezake eta are kaltegarria izan ere.

- TAFALLA ETA TAFALLALDEAN, alde ez dagoen gehiengoa izanik ere, gutiengo bat dago -%9 bat- "'oso aldekoa"' dena eta eskakizun haundiak egiten dituen. Talde gaztea da, 16-40 urtetakoa. Euskararen ikasketa eta erabilpenari buruzko kanpainen nola-halako eskaria dute, aipatu adin talde horretan batikbat. Gainerako proposamenek ez dute %50a harrapatzen.
- Bertzeren batean bezala, zonalde honetako arazo nagusia Euskararen oso aurka dauden taldeek dakarte, iharduera posibleen aitzinean jarrera beligerantea erakuts lezaketelakoz. Karrika mailan Euskara bultzatzeak eta kultur mailako iharduerak (zinema, elkarrizketa, antzerkia, e.a.) onespena izanen lukete "'oso aldeko"' talde horretan eta, berriz, aurkakotasun haundiegirik ez oro har gizartean. Bertzelako iharduerak (hezkuntza, administrazioa) aurkakotasun haundiagoa bilduko lukete.

- LIZARRALDEAk Tafallaldearen antzeko ezaugarriak ditu, %8a ''oso alde'' agertzen dela eta aurkakoen taldea apalagoa dela (%28.5). Beti ere, Euskara sustatzeko eskaria Tafallaldean baino tikiagoa da. 21 eta 30 urte bitartekoak dira eskari haundiagoa egiten dutenak. Euskararen ikasketa eta erabilpenari buruzko kontzientziazio kanpainak eta kultur iharduerak dira gehien eskatzen direnak. Kontutan hartu beharra dago alde ez dagoen taldeak oso aurkako jarrera erakusten diela Euskarazko iharduerei.

- ZANGOZA ETA ZANGOZALDEAN %10.7ak ''oso aldeko'' jarrera erakusten du, baina aurka daudenak %44.9 dira. Hortaz, aurkakotasuna haundiagoa da Tafallan eta Lizarran baino. Bipolarizaziorik haundiena agertzen duen zonaldea da. Euskararen sustapenaren aldeko eritziak badu garrantzia 40 urte bitartean, baina gero desagertu egiten da.

- ''Oso alde'' dagoen talde horrek bat egiten du H.B.k zonalde honetan biltzen duen botuarekin (Tafallan eta Lizarran bezala) eta muturrez mutur aurkitzen da bertze jarriaren aitzinean. Alde horretatik, zonalde honetan, ekintzak zuzurra behar du izan. Eskakizunen taulari ohartuz, ''oso aldekoek'' dena kasik %100ean garrantzizkotzat jotzen dutela ikusten dugu eta, aldiz, aurkakoei dena deus gutikotzat, kasik %100ean ere. Alabaina, ezberdintasuna honetan datza: ''oso aldekoak'' %10a dira eta aurkakoei, berriz, %44a.

- LIZARRAKO HIRIAk ''oso aldeko'' jarrera du (%11.2a), baina baita alderantzizko eritzi indartsua ere (%37.3a), ez Zangozan bezain zabala, baina inportantea beti ere.

- Euskararen erabilpena Nafarroako Hegoaldeko altuena du eta Euskara sustatzeko eskaria ere Nafarroako banaz bertzekoa baino haundiagoa (%23.6), batez ere 30 eta 40 urte bitarteetan (%40.6). Adin talde hori da eskakizunetan portzentairik altuenak azaltzen dituenak. Guzti horiek %50a harrapatzen dute (Hegoaldeko gainerako eskualdeetan baino gehiago). Hortaz, kontzientziazio kanpainen eta kultur iharduerekin onesten zabala bilduko lukete Lizarran, baita Euskara karrika mailan bultzatzeak ere (txartelak, panelak, adierazleak, e.a.)

- ''Aurkako'' jarrerakoek deus gutikotzat jotzen ditu iharduera horiek, baina kontutan hartu beharra dago jarrera ''axolagabea'' dutenak haien alde agertzen direla nagusiki.